

TOLOSA ▶

%26 igo da etortzen direnen kopurua

TAOk trafikoa «arindu» du ▶ 5



Gerontologikoaren aldeko manifestaldia deitu dute

TOLOSA ▶ Itxieraren aurka aterako dira etzi eguerdian Triangulotik, sindikatuek eta langileek deituta

ALDERDIAK ▶ Udaleko alderdiek aldeko mozioa onartu dute; TB-ek Udalaren jarrera salatuta ▶ 3

ARANTXA SORONDO ▶
MENDIZALEA-IDAZLEA

«Egungo estetika kritikatu dut ipuinean»

‘Pyrenaica’-ko saria jaso berri du ▶ 6

Elurrak oztopoak eragin zituen atzo eskualdeko errepideetan

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ A-15 autobia itxita egon zen eta kamioi asko Iruran gelditu ziren Etxegarate itxita zegoelako ▶ 2

IMANOL GARCIA



Eskolaren maketa. HITZA

TOLOSA ▶

Samaniegoko eraikin jasangarri eta bioklimatikoa aurkeztu dute

Haur Hezkuntzarako egingo dute eraikina; lanak ekainean hastea espero dute ▶ 4

IBARRA ▶

Ludoteka eta Haur Eskola zerbitzuak euskaraz izango dira

Udalak hartu du erabakia, Euskara Biziberritzeko Plana jarraituz ▶ 7

Iriarte
GERRUNTZE • LENZERIE
Korreo kalea, 7 • TOLOSA

DENDA
IXTERA
GOAZ
ERABATEKO
LIKIDAZIOA

ELURRA ▶

Oztopoak izan ziren atzo gure errepideetan, elurra dela-eta

A-15a itxi zuten eta Etxegaraterako bidea debekatu zuten kamioi astunentzat



Kamioi astunek ezin izan zuten Etxegarate igaro Gasteizko norabidean eta Iruran gelditu ziren. IMANOL GARCIA

NOELIA LATABURU

Elurrak gogor astindu du Tolosaldeko eta Leitzaldeko eskualdea eta badirudi datozen egunetan ere gure artean izango dugula. Bere lehen ondorioak ere jadanik nabari dira gure

herrietan. Atzokoan, adibidez, Bidegoianera ailegatzeko kateak beharrezkoak izan ziren autoetan. Berastegi ere kaltetua izan zen, izan ere A-15 errepidea, Gipuzkoa norabidean, itxi zuten goizeko 10:30etatik aurrera. Leaburun eta Gaztelun,

berriz, kotxeek kateekin ibili behar izan zuten eta umeek arazoak izan zituzten eskolara joateko. Herri hauetan, elurra kentzeko makinek bere lana egin bazuten ere, arrisku handiena izotza izan zen. Hala ere, elurrak ez du oraindik kalte la-

rririk sortu eta bere agerpenak sortutako paisaiarekin gozatzeko aukera eman du.

Bestalde, N-1 errepidea irekita egon zen, baina kamioi astunek ezin izan zuten Etxegarate igaro Gasteizerako bidean. Ertzaintza ibilgailu hauek geldiarazteko lanetan aritu zen egun guztian zehar errepide honetako puntu jakin batzuetan. Irurako Emua enpresa inguruko industrialdera joateko sarrera izan zen puntu horietako bat. Autoen gidarientzat, aldiz, ez zen errepidea itxi, baina arreta handiz gidatzea eskatu zuten agintaritzak.

Gaurkoan ere zuri

Gaur ere negu giro gordina izango da gure eskualdean. Ipar-ekialdeko haizea bortizki ibiliko da eta hodei trinko mardulak bultzatuko ditu. Izotza izango da ezaugarri nagusia errepide eta kaleetan eta tenperatura baxua ez da aldatuko. Negu gordina, beraz, gure eskualdean duguna eta izango duguna, izan ere bere horretan mantenduko da, bihar arratsaldera arte, hemendik aurrera tenperaturak zertxobait epelduko direlarik.

ZOZKETA ▶

Bihar jakingo dira Bai Euskarari Ziurtagiria duten enpresa eta saltokien zozketaren zenbaki saridunak

Sariak lau lagunentzako bi afari izango dira, Tolosako Orue erretegia eta Amets jatetxean

N. LATABURU

Bai Euskarari Ziurtagiria duten saltoki, enpresa eta entitateek bere bezeroen leialtasuna eskertu nahi dute. Hori dela eta, zozketa bat antolatu dute denen artean, euskararekiko konpromisoa bultzatzeko.

Ekimen honen sustatzaileak Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua, Galtzaundi Euskara Elkarte eta Tolosaldeko udalak izan dira. Babesleak, berri, Euskadiko Kutxa, Amets jatetxea, Orue erretegia eta HIRZA izan dira.

Aintzat har ezazu euskararekin konpromisoa hartzen due-

na leloa duten txartelak banatu dira azken asteetan zehar enpresa, entitate eta saltokietan eta bihar egingo da zozketa. Zenbaki saridunek lau lagunentzako bi afari irabaziko dituzte, lehena Tolosako Orue erretegia eta bigarrena, berri, Amets jatetxean.

Zenbaki saritua Tolosaldeko Euskadiko Kutxako sukurtsal guztietan jakinaraziko da eta hilabetez jarriko da ikusgai. Irabazleak hilabeteke epea izango du sari hau jasotzeko eta 943 591 200 telefono zenbakira deitu beharko du horretarako. Biharko zozketa, noski, notario aurrean egingo da.

Txartelak non eskuratu?

Hauek dira eskualdean txartelak banatzen dituztenak: Adunan, Andreetegi loradenda, Hol Atz egur tratamendua, Zabala sagardotegia; Alegian, Galdaragintza Burni; Anoetan, Bat garajea, Neumatics Rali; Asteasun, Talleres Garmendi Ibarra, Eguzki-lore, Eugenio Uranga hagitegia. Graficas Ibarra inprimategia, Gurutze karrozeria, Juan Bautista Barriola harategia, Uzturpe ikastaroko. Biharko zozketa, noski, Caballero aroztegia, Irura mo-

tor, Nekazaritza Egimendi; Leaburun, Mahala esnekiak; Villabonan, Inmobiliaria Irukide eta Ogi goxo okindegia; Zizukilen, Talleres Arrastoa; Tolosan, berri, leku askok dute Bai Euskarari Ziurtagiria, besteak beste, Aixa aholkularitza, Amets taberna, Aralar kirolak, Arramele AEK, Arri oinetakak, Arsuaga bizikletak, Bakalau txiki jai, Colors, Colowall paper denda, Denak, EHNE-LUR, ELA, edo Tolosa Herria Hedabideak. ◀

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Ibarralde. Osasun eb.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, Iarriald: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Etxebeste, J. M. Gernikako arbolaren 3 (Tolosa).
943 65 10 40
Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -
687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22
anoetaledea@tolosaldeko hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Etxeko lanak. Neska edo andre bat behar da ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu 943 67 58 95 zenbakira.

19:00etatik 21:00etara

Irakasleak. Irakasleak behar ditugu klase partikularrak emateko. Ikasgai eta maila guztietarako. Curriculum Vitae-a bidali helbide honetara: donostia@acadomia.es

Monitorea. Asteasu kiroldegia aerobik-eko monitorea bat behar du. Telefonoa: 943 69 34 00. 18:00etatik 21:00etara

OHARRA

Itxialdia. Tolosako J.M. Tolosa ilepaindegia itxita egongo da otsailaren 9tik 26ra obrak direla eta. Barkatu eragozpenak

GERONTOLOGIKOA ▶

Langileek, senideek eta sindikatuek manifestazioa deitu dute etzirako

Gerontologikoaren itxieraren kontra aterako dira 12:00etan Triangulotik; Aldundia «gezurretan» ari dela diote



Hilabeteak daramatzate langileak eta adinekoak protestan; argazkian, ekaineko irudi bat. LEIRE MONTES

JOXEMI SAIZAR

Larunbaterako manifestazioa deitu dute Tolosako Gerontologikoaren itxieraren kontra bertan daudenen senitartekoei, langileen batzarrak, ELA, ESK, LAB eta CCOO sindikatuek. Manifestazioa 12:00etan abiatuko da Triangulotik eta Tolosa eta Tolosaldeko herritarrak deitzen dituzte, Esther Larrañaga Gizarte Ongizate foru diputatuaren esanetan «zentro eredugarria» izan arren, ixtea erabaki duelako. Erabaki honenkin «pertsone nagusiek ezingo dute bere familia bizi den inguruko egoitzetan egon

eta 62 lanpostu galdu» egingo direla salatzen dute manifestazioaren deitzaileek.

Sindikatuak, langileek eta senideek Gipuzkoako Foru Aldundia «kapitalismorik basatienaren abangoardia» gisa definitzen dute kaleratutako ohar batean. Tolosako Gerontologikoaren itxierak «Gipuzkoako egoitza-lekuetan daukan defizita» larriagotu egiten dela salatu dute. Orain dela zazpi hilabetetik hona «antzeran eta iragartzen» zutena eta Esther Larrañaga diputatuak «behin eta berriz salatzen zutena» azkenean gertatu dela diote. Uztailaren 27an berarekin

izan zuten azken bilera diputatuek itxiera «espekulazio hutsa» zela esan omen zien.

Aldundiaren datuak

Bere iritzi, laguntza-zerbitzuen ikuspuntutik «ez da itxurazkoa» Tolosako adinekoen egoitza ixtea. «Batzerrak nahasteko» ez dela beharrezkoa esango dutela diote, baina horri aurre egiteko Aldundiak berak emandako datuak aipatzen dituzte. Tolosaldeko Zumebatzarre azpieskualdeak dituen 272 egoitza-lekuetatik Gerontologikoko 64ak eta Iurreamendiko 18 —egokitu egin be-

har dutelako— kentzen badituzte, 190 egoitza-leku besterik ez dira geldituko. Horrela 65 urtetik gora eskaini behar den plaza kopurua %4,32tik %3,02ra jaitsiko da eta Gipuzkoako batzbestekoaren —%3,60— azpitik geldituko da. Gainera Tolosako zahartzetasa —%20— Gipuzkoakoa —%18— baino altuagoa da, beraz, egoitzaren beharra handiagoa dela diote. Aldundiak Gizarte Zerbitzuen Mapan jasotzen dituen helburuen arabera 251 leku beharko dira 2005ean eskariaren erantzun ahal izateko. 190 besterik ez badira gelditzen, plaza horiek nola beteko dituzten galdetzen dute langileek eta sindikatuek.

Itxieraren erabakiak lehenetik bazekitena berresteko balio izan duela diote: «Adinekoentzako zerbitzu guztiak pribatizatu nahi dituzte, gizarte zerbitzuak kostatu ala kostatu nahi dituzte eta suntsitu nahi dituzte». Tolosako adinekoak Donostia aldatu behar badituzte «bost axola» zaiela salatzen dute, nahiz eta beti gomendatu zaharrak beren betiko inguruetik ez aldentzea, senitartekoei hurbil izan ditzaten. 62 langile kaleratzea ez zaiela inporta salatzen dute, ezta «gizarte prestatzioetan eredugarria izan den zentroa desagertzea» —diputatuak berak jo zuten egoitza eredugarritzat Batzar Nagusietan—.

Aipatutako arrazoi guztiengatik egiten dute larunbateko deialdia eta egingo dituzten deialdi guztietan parte hartzeragonez dituzte Tolosaldeko herritar guztiak.

ELAren oharra

Bestalde ELA-Gizalaneke Gerontologikoaren itxieraren eta pribatizazioaren kontrako ohar bat kaleratu du. «Demokrazian bizi garenetik» Gipuzkoako Foru Aldundia horrelako erakunde bat ixtera inoiz ez dela ausartu dio. Gipuzkoan adinekoentzako egoitza-lekuen eskasia «nabarmena» denez, itxiera «larriagoa» dela dio sindikatuek. Datoren urteetan leku horien falta somatuko dela iragarri omen du Aldundiak.

ELArentzat «harropuzkeria hutsa» da eta adinekoak eta haien familiak «gizarte mailarik apalenak eta ahulenak» direlarik auseratu dira. Zerbitzu hori beste gizatalde batentzat izango balitz ez luketela itxiko uste dute.

Foru Aldundiak bere menpeko gizarte zerbitzuak (pribatizatze politikak hutsa) darabala dio eta itxiera «politika horren barruan» kokatzen dute. Esther Larrañaga foru diputatuaren arrazoiak «hutsalak» direla, gezurretan ari dela dio, «sinesgaitza» egiten bazaita ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak gipuzkoarrei zuzeneko zerbitzuak emateari uko egiten diola, erakunde «fiskalizatzailea eta burokratiko» dela gero eta gehiago eta herritarrengandik «gero eta aldenduago» dagoe la salatzen du ELA-Gizalaneke. Bukatzeko, Aldundiaren inguruan dauden enpresei ematen dizkiela zerbitzuak azaldu dute, gero diru laguntzak jasoz Aldunditik.

Udalaren mozioa eta Tolosa Bizirik-en salaketa

Tolosako Udalak herenegungo udalbatzarrean aho batez onartu zuen Udaleko alderdi guztiek: EAJ, EA, EB, PSE-EE eta PP. Gerontologikoaren itxieraren aurka aurkeztutako mozioa. Hasteko zentroa Foru Aldundiaren eskumenekoa dela adierazi zuten. Itxiera «berri txarra» bezala definitzen du, «alabaina, sei hileko epean berri on bihur dadin espero dugu». Helburu hori lortzeko Aldundiaren laguntza eskatzen du.

Erabakia «berazter» dezan eskatzen dio Gizarte Zerbitzuen Plan Integrala landu

arte. Plan hori adostu beharko dute bi erakundeek sei hilabete epean, Tolosako eta Zumebatzarreko azpieskualdeko beharrei erantzuteko. Babes- tuta etxeen beharra ikusten bada, Aldundiak laguntzak emango dituela dio mozioak.

Aldundiak jangela sozialeko eta zahar etxeko egungo zerbitzuak ematen jarraituko duela dio, planean landu eta onartu arte eta orduan Udalak bere gain hartuko duela horren ardua. Plana landu eta ezartze-ko bi erakundeek batzorde mistoa adostuko dute. Udalak «ahalegin guztiak» egingo ditu

zaharrek ahalik eta zerbitzurik onenak izan dezaten bermatzeko eta uztailaren 20ko udalbatzarrean onartutako mozioa berretsi egin du: herriko adinekoek herrian bertan bermatzea zerbitzu asistentzialak eta zerbitzuaren egungo kalitatea bermatzea.

Tolosa Bizirik-ek testu bat irakurri zuen udalbatzarrean gai honi buruz duen jarrera azalduz. Plataformak ez du itxiera onartzen. «Erabaki larria, traizioz hartutakoa, gauaren anparoen eta azpikeriaz hartuta» definitzen du. Baina Udalaren «utzikeria» «larria-

goa» iruditzen zaio uztailean geriatrikoaren alde egiteko konpromisoa hartu zuenetik «ez baitu ezertxo ere egin». Jokin Bildarratz alkatea salatu zuen bere alderdiak —EAJ— «Diputazioan dituen interesen alde» egiteagatik, «herriaren eta herritarren interesen gainetik».

Tolosa Bizirik-ek ez du sinisten alkateak informaziorik ez izatea. «Hori iseka egitea litzaiteke, alkateari eta herriari», dio. Horrelako erabaki baten berri ez izatea «pentsaezina» iruditzen zaio. Langile kopuru handi bat kale gorrian gelditu-

ko dela eta egoitza batera sartzeko itxaron zerrendak egin beharko direla, senitartekoei herritik kanpora eramanez, gogorarazi zuen plataformak. Erabiltzaileek «une larriak» bizi dituztela eta bizitza kalitate kaltetzen dela diote. Geriatrikoa aurrera atera behar dela eta zerbitzu garrantzitsua ezin dela galdu diote: egoitza, eguneko zentroa, jantokia, etxea... Galtzen utziz gero, «tolosarrok asko galtzen dugu», diote. Gizarte eragileak mobilizatzea deitzen ditu eta asteaterako, otsailak 1, 19:00etan bilera deitu dute Kultur Etxean, Zentro Gerontologikoa defendatzeko mugimendua abian jartzeko. ◀

HEZKUNTZA ▶

Eraikin bioklimatiko eta jasangarria Samaniegon

Haur Hezkuntzarako eraikin jasangarri eta bioklimatikoaren proiektua aurkeztu du Samaniego herri ikastetxeak; Hezkuntza Proiektuaren ardatzekin bat dator

LEIRE MONTES

«Kostata», baina azkenean egia bihurtu da Samaniego herri ikastetxeak amestutako eta landutako proiektua: eraikin jasangarri eta bioklimatiko, Haur Hezkuntzarako. 2001ean hasi zuten «proiektuaren aldeko borroka», eta, azkenean, ekainerako lanak hastea espero dute. Herenegun aurkeztu zituzten eraikin berriko nondik norakoak ikastetxeko, Tolosako Udaleko eta Eusko Jaurilaritzako ordezkariak.

Itziar Etxeberria Samaniego zuzendariaren esanetan, «prozesua luzea eta neketsua izan da, bidean hainbat oztopo topatu baititugu». 2001ean eman zituzten lehen pausoak: Mari Carmen Marin orduko delegatuak eraikin berriaren prozesua martxan jartzeko konpromisoa hartu zuen, eta Udaleri 4.500 metro koadro eskatu zizkion; «lursail horren bilaketa oso luzea izan zen». 2002an Maria Angeles Iztueta Hezkuntza sailburuari zenbait eskaera egin zizkioten Samaniegokoek: «Espazio falta arazo larriaren aurrean, prozesua azkartzea; eraikin berria 0-6 urte bitartekoentzat izatea; sukalde propioa izatea; eta irizpide jasangarri eta bioklimatikoak aintzat hartzea». Era berean, Udaleri laguntza eskatu zioten kudeaketa mailan, «Tolosan ez baitago beste ikastetxe publikorik, eta ingurumenaren aldeko apustu garbia egiten genduelako».

2003an, eraikuntza jasangarri eta bioklimatiko arloan lan egiten duten zenbait aditurekin elkartu ziren ikastetxekoak. Uztailean, Eusko Jaurilaritzako baliabide material eta antolamendu zuzendari Mikel Cabellori irizpide jasangarri eta bioklimatikoak kontuan hartzea eskatu zioten; Administrazioak «zailtasun handiak» jarri zituela salatu dute Samaniegokoek. CEIDArekin eta IHOBErekin harremanetan jarri ziren, eta Onintza Lasa Udal Hezkuntza zinegotziari Eusko Jaurilaritzakoekin bitartekari izatea eskatu zioten. Iaz, Udalarekin zenbait bilera egin zituzten, eta uztailean Eusko Jaurilaritzara jo zuten berriro: «Azkenean, zoriondu egin gin-



Samaniegoko, Udaleko eta Eusko Jaurilaritzako ordezkariak aurkezpenean, herenegun iluntzean. L. MONTES

Eraikinak izango dituen ezaugarriak

Samaniegoko Haur Hezkuntza hartuko du eraikin berriak. Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailak eraikiko du, Tolosako Udalak emandako Santa Luziako lurzoru batean. Labayen Arkitektura Estudioak egin du proiektua; eraikuntza jasangarriaren eta bioklimatikoaren irizpideak jasotzen ditu, ikastetxeko Hezkuntza Komunitateak bultzatuta.

Proiektutako eraikina lurzoruaren topografiari egokituko zaio —%5eko malda du iparraldetik hegoaldera—, eta «tipologia hertsia eta trinkoa du», Juan Labaien arkitektoak azaldukoaren arabera. «Eraikina ekialdera eta mendebaldera orientatuta dago, eta hegoaldera eguzki fatxada bat du; bertan, energia hartzeko zenbait sistema aurreikusi ditugu: kristalezko galeria (negutegi efektua eta termosifoi), trombe izeneko hormak (akumulazioa eta erradiazioa), panel termikoak (ur beroa), eta panel fotoboltaikoak (energia elektrikoa)».

Ura aurrezteko ere oso garrantzitsutzat jo dute proiektuan. Hala, eraikinaren estalia *agua viva* modukoa izango da: euri ura jasotzeko balioko du, eta komunetan eta ureztatze lanetan berrerabiliko dute. Gainera, deskarga bikoizteko zisterna eta iturri tenporizatuak jarriko dituzte. «Baliabide materialak, ekonomikoak eta energetikoak aurreztuko ditu estalkiak, eta bere lurrun efektua dela-eta udan gehiegizko beroa sahiesten du». Landare-



Eraikin jasangarri eta bioklimatiko berriaren maketa. HITZA

ak eta arrainak jarriko dituzte estalkian, «era naturalean orekatzeko, ura oxigenatzeko eta garbitzeko». Estalkia bisitatzeko aukera izango da, gainera, bai helburu didaktikoekin bai mantentze-lanetarako.

Elektrizitate aurrezpeneko, bestalde, kontsumo urriko argiak eta kontsumo gutxiko igogailua jarriko dituzte, besteak beste. Errendimendu handiko gas kaldera jartzea ere aurreikusi dute. Erabilitako materialak erabiltzeko, «iraupena eta aurrezteko hartu ditugu kontuan, baina ingurumena zaintzea dugu oinarritzat»; besteak beste, hormek 10 zentrimetroko isolamendu termikoa izango dute, aluminioko txapez estalitako egurra erabili dute... Zoru erradiatzailea ere jarriko dute.

«Ahalegin berezia egin nahi dugu eraikina eta bere ingurumena egoki uztartzen eta aldatutako biotopoa berreskuratzen». Horretarako, zuhaitzak

eta landareak jarriko dituzte —iparraldera, hosto egonkorrekoak, haizeaz babesteko; eta mendebaldera ez egonkorra, eguzki energiaren ahal den gehien baliatzen—. Zolak bigunak izango dira, permeableak, akuiferoak elikatzen eta udal kolektoreak deskargatzeko. Horrez gain, baratza eta sukalde ere izango ditu eraikinak. Aparkalekua alboan jango da eta, errepidearen bestaldean, bidegorria.

Planteamentua helburu praktikoa eta hezitzailea jarraitu kudeatuko da: horma-irudi interaktiboak, monitore kontrol sistema... Itziar Etxeberria Samaniegoko zuzendariaren esanetan, «badakigu erabateko eraikuntza jasangarria izateko ezaugarri batzuk falta zaizkiola eraikinari, baina pozik gara egingo dugun ekarpenaz. Eguneroko ohituren eta praktiken bidez ingurumena zaintzea da gure etengabeke erronka». ◀

LANAK

Zailtasunak atzean utzita, ekainerako lanak hastea espero dute ikastetxekoek; 15-18 hilabete iraungo dute

tuzten emandako urratsengatik. Ondorioz, landutako proposamen gehienak kontuan hartuko zituztela ziurtatu ziguten; asko kostata, baina sukaldekoa barne».

Zailtasunak zailtasun, azkenean lanak aurten hasiko direla ziurtatu zuen Mikel Cabello Lakuako baliabide material eta antolamendu zuzendariak: «Ekinean lehen harria jartzea espero dugu». Lanak 15-18 hilabete iraungo dutela aurreikusitakoak; 2006rako Haur Hezkuntzarako eraikina prest izango da, beraz. Administrazioari egingo dako «kritikak» onartu zituen Cabellok.

Juan Mari Juaristi legebiltzarkideak ere «autokritika» egin zuen, entzulegotik: «Kasu honetan, beste hainbatetan bezala, ikusi dugu Administrazioaren funtzionamenduak askotan ez diela herritarren beharrei erantzuten. Zoritxarrez, sekulako atzerapena izan du proiektuak. Partxe egoeran zegoen Samaniego. Eta irakasleei eta langileei esker duintasunez aterata da aurrera».

Hezkuntza Proiektua

Euskara eta ingurumena dira Samaniego ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren ardatzak, eta horregatik, besteak beste, eskatu dituzte irizpide jasangarri eta bioklimatikoak kontuan hartzea eraikin berriarako. Arantxa Iruretagoiena eskolako Ingurumen Batzordeko arduradunak azaldu zituen beste arrazoiak: «Gure herriko Agenda 21eko partaide gara eta foro guztietara joaten gara. Ekoekola bihurtu gara eta bandera berdea eman digute, eraikin berriak Agenda 21 egitasmoarekin aurrera jarraitzeko eta arlo didaktikoa lantzeko baliabide ezin hobea izango da... Horrekin guztiarekin koherente izan nahi dugu. Ingurumena zaintzen eta osasuntsuago bizitzeko lagunduko digu eraikin berriak. Apustua eta erronka da, eta proiektuan sinisten dugu».

Onintza Lasa Hezkuntza zinegotzia pozik agertu zuen proiektuaren aurkezpenean: «Jarri duzuen gogoia eta inplikazioa kutsatu egiten da. Proiektu hau aitzindaria da, bakarra, balio handikoa. Eraikina etorkizunerako errenta gisa geratuko da gurean, eta harro egon gaitezke benetan».

MUGIKORTASUNA ▶



Ezker-eskuin: Iñaki Zabalza udaltzainburua, Xabier Agiriano Gertek enpresako kontseilaria, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Anate Iturralde, Igarondo merkatarien elkarteko kidea, atzo, Mugikortasun Bulegoan, Aparkaleku Planaren urteko balantzea egiterakoan. I. ETXEBESTE

Bildarratz: «Egunero Tolosara etortzen den jende kopurua %26 handitu da urte honetan»

Aparkatzeko sistema berriak berebilen hiri barneko trafikoa «arindu» egin duela eta batetik bestera «oinetz joateko joera» sustatu duela dio Tolosako alkateak

IRATXE ETXEBESTE

Aparkatzeko Planari esker, azken urtebetean herrira egunero etortzen den jende kopurua %26 handitu dela esan zuen atzo Tolosako alkate Jokin Bildarratzek. Aparkaleku Planak urtebete betetzen zuen egunean, lehen balantzea egiteko Pablo Gorosabel kaleko 48. zenbakian zabaldu berri duten Mugikortasun Bulegoan egindako prentsaurrekoan. Aparkalekuen sistema berri horrek «arindu» egin du biribilen hiri barneko trafikoa bere hitzetan, eta, era berean, batetik bestera «oinetz joateko joera» sustatu.

Horren harira, urteko balantzea «ezin hobetzat» jo du alkateak, esanez, hazkunde horren ondorioz Tolosaren bizia eta jarduerak «suspertu» egin direla, egun, iaiz baino 350 berebil gehiago sartzen direlako udalerrira egunero: «Alegia, 500 lagun berri erabiltzen eta kontsumitzen dituztela bertako zerbitzuak». Zentzu horretan, eta Tolosa Tolosaldeko hiriburu izaki, «ekimen erakargarriak» bilatu behar dira Bildarratzen aburuz, eta sistema berria kanpotarrak erakartzeko bitarteko egokia dela uste du.

Bestalde, gora egin dute bai oinezkoen desplazamenduek bai hiri barneko garraioaren erabilerak. «Tolosarrek lehen baino gutxiagotan hartzen dute autoa ibilbide laburrak egi-

teko: aurten 150 berebil gutxiago ibili da lanegunetan herrian; hots, hiriaren erdigunera zuzentzen diren desplazamenduen %13». Horrez gain, jendeak «oso maiz» jo du TAO sistemara, bere erabilera %90 izanez. Udal ordezkariak diote erabiltzaileen «erantzun paregabe» horri esker zirkulazioa «nabarmen» arindu dela, «desagertu egin direlako aparkaleku bilatzearen hirian izaten ziren mugimenduak, handitu karga eta deskarga eremuakiko errespetua eta murriztu legez kanpoko geldialdiak».

Ondorio berberak atera ditu Gertek enpresako kontseilaria Xabier Agirianok ere. Tolosako aparkamentu erregulazioko arduraduna da bera, eta lan horren ardura eman ziotenean Gorosabel kalea eta Euskal Herria plaza baino ez zeudela eginak esan du: gutxi gorabehera, 150 aparkaleku. «Proiektua zabaldu egin genuen eta 1.300 bat aparkalekura iritsi. Urri aldera egin genuen bigarren zabalakunde Berazubi eta San Esteban auzoetan eta Araba etorbide atzealdean beste 300 aparkaleku sortuz. 1.600 aparkaleku daude, beraz, orain».

Aparkaleku horiek ibilgailuen errotazio «askoz handiagoa» eragin dutela, eta, herrian aparkatzeko «leku gehiago» dagoela iritzi dio Agirianok. Hala ere, udal ordezkariak baztertu egin dute legegaldia amai-

tu baino lehen gune gehiagotan TAO sistema ezartzea. Hori bai, aldaketak etor litezke aurrerantzean, besteak beste, zenbait zaitan koloreak aldatuz, «zerbitzua hiritarren eskareri hobeto egokitzearen».

Gune ezberdinak, koloreekin

Aparkalekuak arautzearen xede nagusiak hirigunea babestea eta aparkatzeko lekua berebil guztiei eskaintzea direla gogorarazi dute, bestetik. «Autoari nolako erabilera eman nahi zaion, hainbat eremu ezarri dira azken urtean: marroi kolorekoan, gehienez ere bi ordutuz utz daitezke egoiliarrenak ez diren ibilgailuak; urdinak biñeta duten egoiliarrentzat dira; marroiak tarifa bera du lehen bi orduetarako, eta beste bat hurrengo bi eta lau orduetarako; gune berdea biñeta duten egoiliarrek erabil dezakete; eremuotan prezio bat izaten da goiz edo arratsalde osorako eta beste bat egun osorako. Eta gorria biñetadun egoiliarrentzat erreserbatua dago».

Aparkalekuen kudeaketa berri horrek «hobekuntza nabarmenak» ekarri dizkie erabiltzaileei, eta, era berean, «lana erraztu» dio Udaltzaingoari, lehengo «aparkaleku oker asko» zuzentzea eragin duelako. Hori zioen atzo Tolosako udaltzainen buru Iñaki Zabalzak: «Oraindik ere herritarrek ba-

dute joera hainbat lekutan bigarren ilaran ibilgailua utzeko, baina indisziplina horrek behera egin du». Zabalzak dio aparkatzeko sistema berria ezarri zutenetik trafikoa mantsotu egin dela eta aparkalekuen eskaintza handiagoa dela nabaritu dutela, bereziki.

Igarondo merkatarien elkarteko kide Anate Iturralde ere hartu zuen parte aparkalekuen balantzea egiteko ekitaldian, eta erosketak egitera Tolosara etortzen direnekin pentsatuta, urtean zehar kanpaina berri bat abiaraziko dutela iragarri zuen. Erosleen fideltasuna lortzeko, agiria aurkezten dutenei TAO txartelaren diru kopuru bat itzuliko dietela jakinarazi dute, elkarteko kide diren dendetan. Hala ere, Tolosan lan egiten dutenentzat TAO gabeko guneak sortzeko aukera aztertzea eskatu zion Igarondoko ordezkariak Tolosako alkateari, eta hark eztabaida ireki baterako atek zabaldu zizkion.

Berrikuntza garrantzitsuak

Egoiliarren txartelak, diru-zorroren txartelak eta parkimetro indibidualak dira berrikuntzak. Ibilgailu bat duten tolosarrek egoiliarren txartelak lortu ahal izango dituzte TAO sistema dagoen lau eremuetaoren batean erroldatuta egonez gero. «Txartel horiek lehentasuna emango diete aparkatzerako-

ZENBAIT DATU ▶

TAO ZERBITZUA

Diru bilketa gordina. 550.220,60 euro.
Diru bilketa garbia. 513.449,90 euro.
Likidazioa. 131.956,09 euro.
Egoiliarrak. 40.000 euro.
Irabaziak. 171.956,09 euro.

HIRIBUS ZERBITZUA

Diru bilketa. 30.372,25 euro.
Egunak. 284.
Kostua. 204.480 euro.
Fakturazioa. 174.107,75 euro.
Beste gastuak. 18.662,96 euro.
Defizita. 192.772,41 euro.

an, doan aparkatu ahal izango baitute beren eremuko sektore urdin, orlegi eta gorrian. Hala nahi dutenek eskura dituzte, halaber, aparkalekua ordaintzeko parkimetroetan erabiltzen diren diru-zorro txartelak. Hasieran 30 euroko karga egiten da, eta kopuru hori agortutakoan, nahi adina diruz bir-karga daitezke parkimetroetan bertan». Txanponak eramatea saihesten du bide horrek.

Parkimetro indibidualak erabiltzeko eskubideak, aldiz, 170 euroko kostua du. 30 euroko txartelak kargatzeko erabiltzen dira, eta minutuko 0,005 euroko tasa dute. Zerbitzu hori Tolosako denda eta langile autonomoentzat da, etengabe aritu behar baitute leku batetik bestera joan eta aparkatzen. Sistema horri esker kaleetako parkimetroetara inoiz hurbiltzeko lana aurrezten dute. Mugikortasun Bulegoan eskura daitezke bitarteko horiek guztiak.

«Denok konturatu gara herrian aparkatzeko leku gehiago dagoela». Esaldi horrekin laburbildu du Bildarratz urtebeteko lana, eta gaineratu: «TAO sistema bikain dabilela ikusita, litekeena da egoiliarrek aparkatzeko plana martxoaren prest izatea. Ekimen horrek egoiliarrei garajeak eskaintzea aurrekusten du, kaleetan espazio gehiago utziz, bisitariei lekua eskaintzeko».

IRIARTE
J A T E T X E A
BERROBI

INAUTERIE TAKO
MENU BEREZIA
26 €

Erreserbak • 943 683 078

ZIZURKIL ▶ FRAISORO NEKAZARITZA ESKOLA

Nekazal eskolan euskaraz egitea exijituko dute

Manifestazioa egingo dute nekazaritza ikasleek Abadiñon astelehenean

IMANOL GARCIA

Nekazal eskolen asanbladak manifestazioa deitu du *Gure eskubidea delako, nekazal eskolak euskaraz* lelopean. Abadimon egingo da manifestazioa, Gaztetxeko plazatik abiatuta, goizeko 11:00etan. Hego Euskal Herriko nekazaritza ikasleei egin zaie deialdia, tar-tean Zizurkilgo Fraisoro esko-

lakoeti. «Euskal Herriko nekazal eskoletan urtero ehundaka ikasleek ematen dugu izena, eta gure burua erdara hutsez ikas-tera behartuta ikusten dugu, ez baitago nekazal eskola bakar bat Euskal Herrian ikasketak euskaraz eskaintzen dituen», azaltzen dute ikasleen asanbladatik. Datorren ikasturte-tan egoera hau aldatzeko egingo dute manifestazioa.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Presoen eskubideen alde, manifestazioa bihar

Herriko kaleak zeharkatu dira, arratsaldeko 19:30ean hasi eta 20:00ak arte

I. GARCIA

Etixeraten hileko azken ostiraleko deialdiarekin bat eginez, bihar enkartelada-manifestazioa egingo da Anoetan. 19:30ean hasita eta 20:00ak arte herriko kaleak zeharkatuko dira euskal presoen eskubideak aldarrikatzu.

Bestalde, presoak Euskal Herriaratzeko etxez-etez egiten ari den sinadura bilketa aurrera doa eta «arrakasta ona izaten ari da», antolatzaileek ohar batean azaldu dutenez. Etzi, eguerdian eta arratsaldean, sinadura bilketa burutuko da, horretarako mahai bat jarri zuten herriko plazan.

ALKIZA ▶

‘Oilategitik’ prestatzen joateko bilera

Oilategitik aldizkaria prestatzen joateko bilera egingo da gaur arratsaldean, 20:30ean, Kultur Etxean. Ordu eta leku berdinean, eratu berri den abesbatza taldeak herriarrak deitzen ditu Santa Ageda bezperako ohitura berreskuratzeko asmoz saio bat egitera. Hurrengo, otsailaren 3an, egingo da, 20:30ean eta Kultur Etxean. Egitasmoarekin 1952 urte inguruan eten zen ohitura berreskuratu nahi dute.

ANOETA ▶

Jokoetan izena emateko aukera Alkartasunan

Tolosaldea mailan jokatu den hainbat mahai jokotako txapelketarako izen emateko aukera dago astelehena arte Alkartasunan. Bikoteka eman behar da izena eta bikote bat baino gehiagok azalduz gero, beraien artean lehiatuko dira Alkartasuna norik ordezkatuko duen zehazteko. Jokatu ondorengo hauek dira: musa lau erregetara, tutea, sei-koa, puntua, toka eta dominoa. Bestalde, Joaquín Callejak ohar batean azaldu duenez, Alkartasuneko junta utzi zuen arrazoi pertsonalengatik eta ez «osasu arazoengatik, Manuel Odriozolak esan bezala. Komunikabideetan zuzenketa azkarra egitea espero dute».

ARANTXA SORONDO ▶ MENDIZALEA ETA IDAZLEA

«Barruan dudana ateratzeko idaztea gustuko dut»

Arantxa Sorondo billabonatarrek jaso berri du Pyrenaica-ren ipuin lehiaketaren bigarren saria

I. GARCIA

Pyrenaica aldizkariak aurten lehen aldiz antolatu du ipuin lehiaketa mendiaren gaia ardatz hartuta. Arantxa Sorondo billabonatarrek bigarren saria eskuratu du euskararen alorrean *Zimurdurak* lanarekin. **Nolatan aurkeztu zinen ipuin lehiaketara?**

Gustuko dut idaztea. Edade batean nago esperientzia puska bat hartu dudala eta barruan daukadana ateratzeko modu gustukoa egiten zait idaztea. Amodiozko gutunen lehiaketara ere bidali nuen eta herriko saria eman zidaten. Horrelako lehiaketetara bidaltzen dut idaztako ikusteko besteek zer iritzi duten.

Zertaz ari da aurkeztutako ipuina?

Ipuinean zeharka gai bat azaltzen da: *Zimurdurak* du izena eta bizipenek eta nolabaiteko bizitza intentso batek sortzen dituen zimur horiei, gure gizartean hain gaizki ikusita daudenak, balore bat ematea. Merez duela zenbait estuasun, zenbait arrisku, zenbait poz intentsoki bizitzea, nahiz zimurak atera. Hau da istorioan zehar ematen dudana mezua. Istori-



Arantxa Sorondo. I. GARCIA

an mendizale batzuek berekin daramaten posta bat da ardatza. Postal honek kontatzen ditu bere ikuspuntutik mendizale hauen bizipenak Himalayan.

Espero zenuen saria?

Ez, ez nuen espero. Jakin nuen lehiaketa zegoela bidali nuen eta horrela balio izan dit pixka bat hustutzeko. Betidanik izan naiz nahiko kritikoa eta errebelde xamarra eta bai balore eta bai rol batzuen inguruan posizionatzea gustatzen zait. Horregatik emakumeengan hain sartuta dagoen egun-goto estetikak kritikatu dut.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

ETXEBIZITZAK

Aia. Eraikuntza berriko apartamentua. 2 logela. Garajearekin. Naturaren erdian. 35.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.
Alegia. Duplex eraikuntza berriak. 2 logela. Mandio. 669 87 19 09.
Amaroz. 80 m²-ko lurra. 3 logela. Mandio. 669 87 19 09.
Anoeta. Bizitzera sartzeko, bi eta hiru logelarekin. Mandio. 669 87 19 09.
Berrobi. 90 m²-ko etxebizitza,

sukaldea, igogailua, 12 m²-ko ganbara eta garaje murrarekin. Mandio. 669 87 19 09.
Berrobi. 90 m². 41.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.
Hernani. Eraikuntza haundia. 3 logela ilo musikalarekin. 80m² + 40m² jardinarekin. Ebe ederra. Mandio. 669 87 19 09.
Ibarra. Maestro Guridi. Bizitzera sartzeko, 3 logela, eguzkitsua. Mandio. 669 87 19 09.
Ikaztegieta. 2 pisuko villak. 120 m². Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Santa Klaran 111 m²-ko etxebizitza salgai, 4 logela, egongela handia 25 m²-koa, igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Korreo kalean etxebizitza batzuk, 70 m²-ko duplexa salgai. 15 m²-ko terrazarekin, teilatu berritua,

berogailuarekin. 26.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Foru etorbidean, leku hobereanean, erabat kanpo aldera, atikoa, 85 m² + 50 m²-ko terraza. Bista ederra. Sukaldea, 3 gela, egongela, bainua, trasteroa, berogailua eta igogailuarekin. 68.500.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Lurre auzoan. 33 m²-ko txokoa, 10.000.000 pta, tarteplantan. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Zumalakarregi. 3 logela, igogailua, kalefazioa. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Korreo kalea. Apartamentoa bizitzera sartzeko. 1 eta 2 logelak. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosaldea. Etxebizitza berriak. 1 eta 3 logela. Garajea murrarekin.

Mandio. 669 87 19 09.
Villabona. 102m². egoera ezin hobean, garagea, 3 logela de kanpokaldea. Eraikuntza ederra. Eraikuntza berriak. Mandio. 669 87 19 09.
Zaldibia. 90 m². Kanpokaldea. 26.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.
Zizurkil. 3 logela kanpokaldea. Balkoi ibxia, ganbara. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Erremeritari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. 428 m²-ko pabiloi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbide ondoan. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Lokalak salgai, Laskurain kalean, Rondilla kalean, Erremeritari kalean, Trianguloan eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.
Villabona. Lokal berria, 35 m², sukaldez hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

NEGOZIOAK

Ileapaindegia. Ileapaindegia alokatzeko. 90 m². Guztiz diseinatu. Mandio. 669 87 19 09.

IBARRA ▶ EUSKARA

Txiki-txikitatik euskaraz

Ludoteka eta Haur Eskola zerbitzuak eskainiko ditu euskaraz Udalak

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako Udalak 2005/2008 laurterako Euskara Biziberri-tzeko Plan Nagusia garatu du, eta Euskararen Aholku Batzordea osatzen duen eremu desberdinetako eta plurala den ibar tar talde bati aurkeztu dio.

Ibarraren euskararen erabileraren datuak garrantzitsuak diren arren, are garrantzitsuagoa da aita-amen konpromisoa, euskararen erabileraren normalizazioa nahitaez hizkuntzaren transmisio prozesuan baitago oinarrituta.

Hori dela eta, Ibarrako udal-etik familiak animatu nahi dituzte, ahal duten neurrian, Ibarrako euskararen erabileraren normalizazioan dinamizatzaileak izan daitezten, eta euskaraz bizitzeko desio hori errealitate bihurtu dadin lanean jarrai dezaten eguneror.

Datozen asteetan 2005/2006 ikasturterako Haur Eskolako (0/3 urte) eta derrigorrezko hezkuntzako (3/16 urte) aurretiko izen-emateak egin behar dira. Ibarrako Udalak Udal Haur Eskola eta Udal Ludoteka eskaintzen ditu eta zerbitzu hauek euskaraz eskainiko dira oso-osorik. Udal Haur Eskolaren alderdi pedagogikoak Uzturpe Ikastolako Uzturpe Haur Eskola S.L. enpresa arduratzen da, eta Udal Ludotekaren alderdi pedagogikoak Uzturpe Ikastola arduratuko da, Lontxo

Ludoteka Elkartearen bidez. Edozein motatako informazioa jasotzeko jarri harremanetan Uzturpe Ikastolarekin edo Ibarrako Udalarekin. Gainera, www.ibarrakoudala.net web orriaren informazioa jaso ahal izango da.

DATUAK ▶

INDARGUNEAK

▶ **Euskaldunak.** Ibarrako hiru biztanleak bi (%68,8) euskaldunak dira.

▶ **Euskaldun zaharrak.** Ibarrako biztanleen erdia baino gehiago (%54,36) euskaldun zaharra da.

▶ **Euskara erabili.** Ibarrako hamar biztanleak lauk (%42,56) euskara erabiltzen dute etxean.

▶ **Irakaskuntza.** Irakasmaila guztietan D ereduaren eredu bakarra da.

AHULGUNEAK

▶ **Gaztelania erabili.** Hamar biztanleak lauk (%39,1) gaztelania erabiltzen dute etxean.

▶ **Ikastaroak.** 2003-2004 ikasturtean ez da euskalduntze-alfabetatze ikastarorik eman Ibarran.

▶ **Erabilera plana.** Ez da enpresarik erabilera plana abian duenik.

IBARRA ▶

Hockey txapelketa larunbatean

Uzturpe Ikastolaren V. Kultur Asteak aurrera darrari eta igandea bitarte ekitaldi ugari daude antolatutik herritarrentzat. Gaur proiektio saio berezia izango da ikusgai Benito Izagire kultur etxean. Hain zuzen ere, Ibarrako herritarrek eskaini zuten

Ezkontzerikan ez dugu espero antzerki saio ikusteko aukera izango da 18:00etan eta 20:00etan. Etzi, Kalderero Hockey torneoak izango da Belabieta frontoian; alebinetan Uzturpek Samaniegoren aurka jokatuko du 17:00etan eta seniorren mailan Uzturpe eta Txuri-Urdin izango dira aurrez aurre 18:00etan. Amaitzeko, iganderako Mandubia-Beotegi-Ezkio ibilaldia prestatu dute. Kultur Etxetik izango irteera 9:00etan eta itzulera, berriz, 14:00etan herriko plazan. Ibilaldia amaitu ondoren, XVI. mendeko Igartubeiti base-ria ikusi ahalgo da.

GAZTELU ▶

Kontzejua zabalik izango da Inauterietan

Gazteluko Kontzejuko arduradunek jakinaren gainean jartzen diete bezeroei Inauterietako asteburuan, hau da hilaren 4, 5 eta 6an zabalik izango dela eta taberna eta jatetxe zerbitzuak eskainiko dituela. Erreserba egin nahi izan ezkeror 943 67 18 40 edo 685 78 03 37 zenbakietara hots egin beharko da.

LEABURU-TXARAMA ▶ GIZARTEA

Sahararen egoera ezagutzeko hitzaldiak

Gaur Txaraman eta etzi Leaburun izango dira hitzaldiak; argazkiak ere ipiniko dituzte



Saharako bi haur eta atzean kanpamentuak. I.TERRADILLOS

I.TERRADILLOS

Neguko kanpainari dagokion balorazioa egin du Leaburu-Txaramako Udalak Sahararako janari bilketaren inguruan. Oso positiboa izan dela aurtengo kanpaina adierazi dute eta eskerrak eman nahi dizkiote parte hartu duten guztiei sahararren izenean.

Bestalde, abenduan leaburuar talde bat izan zen Saharako kanpamenduetan bisitan eta sahararrak nola bizi diren euren begieztatu ondoren herritarrei azaldu nahi dizkiete han bizitako uneak. Horretarako, hitzaldiak antolatu dituzte eta han ateratako argazkiak ikusteko aukera ere izango da. Gaur izango da lehendabiziko hitzaldia Txaraman 19:00etan elkartean eta larunbatean bigarrena Leaburuko gazte gelan 17:00etan.

Saharako herria lagutzeko egiten diren ekintzekin jarraituz, *Uda bakean 2005* programa jada martxan jarri da. Programa honen bidez Saharako haurrak 2 hilabetez gure etxeetan egoteko aukera izaten da. Saharako errefuxiatu kanpamentuetako bizitzan dituzten lehen mailako beharrak asebetetzeko posibilitatea ematen die; liburuetan ikusita soilik ezagutzen dituzten ibaiak, itsaso edo mendiak ikusi ahal izaten dituzte eta gure artean esperientzia ahazteazina izaten dute.

Haur hauek hartzen dituzten zatere esperientzia paregabea izaten da, eta hori dela eta Leaburuko Udalak programa honetan parte hartzeko gonbita luzatzen die herritarrei. Informazio gehiago, udal-teraxera deituz edo hitzaldietara joanez lortu ahalgo da.

hitza

txokoa^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

SHANTY KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 27a, osteguna ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartzesketa, Adura, Abotzu, Aegia, Alkiza, Alzo, Amerleta, Aroeta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Eduain, Hernialde, Ibarra, Itxaspegi, Iruia, Larrin, Leizola, Lizartza, Oteiza, Tolosa, Villabona, Zuzuki
bestenik: Leizaldekoko Euzkara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurerria.
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

7

hotzena

3

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN

Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943
30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Ezkontzerikan ez duzu espero Ibarroko herritarren kale antzerkiaren proiektioa 18:00etan eta 20:00etan Kultur Etxean.

Alegia. 21:00etan Gaztetxean Everesteko trekkingaz diapositiba emanaldia izango da, Igor eta Jose Manuelen eskutik.

Tolosa. Angel Navas mendizale tolosarrak diaporama eskainiko du Bonberenean 19:00etan.

Tolosa. Zaldunita bezperako danborradaren entsegua Kultur Etxean 20:00etan.

Tolosa. Alpino Uzturrek elurretara joateko autobusak antolatuta ditu otsailaren 5-6an Beretera, Marxan parte hartzeko. Autobusa eta pentσιο erdia aterpean eskaintzen dute. Informazioa eta izen-ematea Gudari 5, behean.

Tolosa. Tolosarrak zikloturista taldearen bilera San Esteban auzoko lokalean 20:00etan.

Tolosa-Ibarra. Hautesle errolda jendaurrean dago jarrita udalebketan.

AGENDA
Informazioa eta izen-ematea bertan bertan.

FOROA
Gaztetxean martxoaren 17an.

INKESTAK
Gaztetxean martxoaren 17an.

GUNE PRIBATU
Bertan bertan.

Tolomendiren webgunea martxan

TOLOSALDEA ▶ Tolomendik, mendi nekazaritzako elkarteak, webgunea martxan jarri du bere bazkideei—28 udal eta 17 elkarte— informazio zehatzagoa eta zuzenagoa emateko eta iritziak jasotzeko. www.tolomendi.net da helbidea eta bertan bi zait aurki daitezke. Alde egonkorra ez da aldatu. Aurkibidea, zerbitzuak eta helburuak aurki daitezke hor. Beste atala dinamikoagoa da. Agenda, foroa, bileretako aktak, proiektuak, txostenak. Bazkideei eta edozein bisitarik du parte hartzeko aukera. Zergatik bultzatu herri txikien garapena? Zer eskaintzen die gizarteari? Eta gizariteak? galderak planteatzen dira foroan. Inkestan beriz, «Prest al zaude zure haurren eskolako jangelan baserriko produktuak sartzeagatik gehiago ordaintzeko?» galdera luzatu dute. Webgunearen bidez bazkideekiko hartu-emana hobetu nahi du Tolomendik. Azkenik, bileren hitzordua eta puntuen informazioa emateko SMSen bidez jakinaraziko diete bazkideei. HITZA

Txarama. Saharako esperientzia eta argazkiak azalduko dituzte herritar batzuk elkartearen 19:00etan.

Villabona. Igandean Ehiza Txiki Txapelketa txakurrarekin izango da. Izen-ematea osteguna bitarte Eizmendi armadendan 18 eurotan.

ERAKUSKETA

Alegia. Jose Manuel Oartzabal. Himalayako Argazkiak. Jubilatuen elkarte.

Tolosa. Txomin Txueka. Bidaietako argazkiak. Aranburu Jauregia.

Tolosa. Carmelo Ortiz de Elgea. Koadroak. Aranburu Jauregia.

Tolosa. Jose Enrique Ceberio. Koadroak. Lanbroa taberna.

Tolosa. Nekane Fernandez. Koadroak. Sorron denda.

Tolosa. Manuel Arretxe. Koadroak. Saikin taberna.

ZINE-KLUBA

Tolosa. Stephan Frears-en *Negocios ocultos*. 21:30ean Leidor zineman.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Manuela Lopetegi (Lizartza). 80 urte. Muxu bero bat ebeko guztien partetik.



URTE ASKOAN

Aimar Artola (Abaltzisketa). Aitona, amona eta izeba-osaben partetik.



ANIMO AGURRA

Oskar Zelarain. Txapean 4. eguna. Hotz handia egonik ere, ziega barruan baino hobeto patoan. Animo! Amaia eta Lander.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!



Euskal produktuak gure sukaldean

egunero fitxa bat **DOAN** BERRIAREKIN



Jantzi mantala eta hasi sukaldean!

Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

50 produktu 50 jabetxe

Fagollaga jabetxe, Zuberoa jabetxe, Mugaritz jabetxe, Akelarre jabetxe, Tubal jabetxe, Etxebarri erretegia, Hartza jabetxe, Argomaniz Paradore, Borda Berri jabetxe, Currito jabetxe, Les Pyrénées jabetxe, Portalón jabetxe, Fronton jabetxe, Astelena jabetxe, Casa Nicolasa jabetxe, Aloña Berri jabetxe, Martinez jabetxe, Etxanobe jabetxe, Casa Manolo jabetxe, Elkano jabetxe, Kabia jabetxe, Izkiña jabetxe, Jokin jabetxe, Urepel jabetxe...